

Eskolako Agenda 21aren helburuak

Ingurumen hezkuntzako programa izanez, EA21en xede nagusia da –bakarka zein kolektiboki– arazoaren konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea.

EA21 programarekin ondoko helburuak lortu nahi dira ikastetxeetan:

- Hezkuntza komunitatean Tokiko zein Planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza landu, iraunkortasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.
- Ikastetxe eta udalerriko ingurumen arazoaren konplexutasuna identifikatu, aztertu, alternatibak proposatu eta Eskolen Udal Foroetan ezagutarazi.
- Ikastetxe eta udalerriko iraunkortasuna lortzeko prozesuak abiatu.
- Ikasleei bere ikasketetan, eskolan eta udalerraren bizitzan protagonismoa eman.
- Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatu, baita erakunde eta eskolen artekoa ere.
- Garapen iraunkorrek dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko curriculum egokitu, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte-hartzaileak erabiliz.

Ikastetxe bakoitzak helburu horiek zehaztu eta egokitu beharko ditu bere ezaugarri eta interesen arabera.

Ezaugarri horien artean bere udalerriko iraunkortasunaren egoera eta plangintza dago. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk gehienek Tokiko Agenda 21 garatzen dihardute bi elkarlaneko saretan bildurik [Udaltalde 21](#) edo [Udalsarea 21](#).

IRAES (Iraunkortasun eskolen sarea) helburuak

IRAES 21 *iraunkortasunerako ikastetxearen* errekonozimendua jaso duten eta iraunkortasuneko hezkuntza elkarrekin bultzatzen duten ikastetxeen sarea da.

Ikastetxea irakasleria, ikasleria, irakasleak ez diren pertsonalgora eta familiek osatzen dituzten hezkuntza komunitate bezala ulertzen da, inguruarekin herremananduta.

Sarea 2008-09 ikasturtean abian jarri zen eta zabalik dago helburu berdina duten beste hezkuntza erakundeetara zein ikastetxeetara.

Ikasleentzako lehendabiziko ekimenak 2009-2010 ikasturtean jarri ziren martxan Confint nazioareko prozesua zela medio.

IRAES 21 sarearen helburuak hauek dira:

1. Euskadiko ikastetxeetan iraunkortasuneko hezkuntza bultzatzea
2. Eskola Agenda 21 programaren kalitatea sendotzea
3. “Iraunkortasuneko eskola” agiria duten ikastetxeen arteko sinergiak bultzatzea

4. Nazio baita nazioarteko mailako iraunkortasuneko hezkuntzako sareekin harremantzea
5. Hezkuntza komunitatearen ikaste prozesua bultzatzea kooperazioaren bidez

Helburuak bi arlotan garatzen dira:

a) Iraunkortasunerako hezkuntza prozesuak sendotzeko direnak

1. Iraunkortasuneko Hezkuntzaren erronka berriak identifikatzea
2. Partaidetzarako, erabakiak hartzeko eta komunikaziorako ikasleentzako guneak zabaltzea
3. Iraunkortasunerantzako bilakaera adierazleak bultzatzea
4. Ikasitakoa hezkuntza komunitateko beste kideei zabaltze lana erraztea
5. Adierazle zehaztean , ebaluapena erraztea

b) Elkar laguntza bideratzekoak

1. Ikastetxeetako esperientziak eta materialak elkarrekin jartzea
2. Esperientzien eta Praktika Onak elkarrekin trukitzea, sarean eta beste erakundeekin
3. Beste lurraldeetako ikastetxeekin esperientziak trukitzea bai atzerrian bai beste komunitatean
4. Iraunkortasuna curriculumean txertatzeko lana amankomunean jartzea
5. Lan-tresna bat sortzea egindakoa aztertzeko eta jarraipena emateko